

Ekai Txapartegi

FILOSOFIAN DOKTOREA

Mexiko, urdeak eta surrealismoa

M

exiko hain herrialde surrealista izanik, Andre Bretonek bere hitzaldia hiru minutura laburtzea erabaki zuen: “Nik ez dizuet zuei esango surrealismoa zer den. Surrealistak zuek zarete”. Eta arrazoi.

Sikario eta hiltzaileek Ama Guadalupekoari otoi egitea normala da, beharbada. Baina gaizkileen otoiak barkamena eskatzeko beharrean laguntza eskatzeko izatea... hori lagunok surrealista xamarra bada.

Mexikarrak, oro har, kolonietako delinkuente espainolen araudietara moldatutako seme-alabak dira. *El choro mareador* delakoaren herrialdean deabru guztiak zintzoak dira, errukitik abiatzen dira azpijokoak eta maite zaituztelako kentzen dizute “sobran” duzuna.

Mexikoko surrealismo horren atzean pobrezia dago. Eta pobrezia sutzen duen “*el que no tranza, no avanza*” pentsaera bihurria. Horren arabera, Mexikon espazioa ez da euklideoa. Beti dago bihurtzeren bat bidean, okerren bat narrazioan, ulertezinen bat elkarriketan, egoera surrealista egiten duena.

Pandemiaren kontura, Mexikoko zabortegetan milaka urde hazten dela ere ikusi dugu. Irudiok ikusita, normala iruditen zaigu inguru horretan urdeak gaixotzea.

Irtendibidea urde haztegi horiek ixtea



EGOTIZ LASA

bezain erraza dela pentsatu baduzu, ordea, gogoan hartu beste hau ere: urde-jabeek zabortege horietan hazten dituzte urdeekin batera euren haurrak.

Eta, inportanteago, askotan gure iritzien atzean gure zilborra gordetzen dugu. Urde gripeak txertoa baduela jakin dugunetik pandemia ez zaigu interesatzen. Hemendik aurrera gaixotasun horrekin txiroak bakarrik hilko direnez, alarmaren bolumena jaitsi egin dugu. Gu ez gara surrealista, gu “razionalak” gara, eta zabortege batean urdeak eta haurrak ikusi eta urdeak handik atera ditzatela eskatzen amai dezakegu.

Pobrezia gaintzen ez bada, Mexikok kontrolagaitza izaten jarraituko du. Mexikar gehienek bizimodua herrialdea kontrolagaitza izatearen menpe dagoen bitartean, Mexikok surrealista eta kontrolagaitza izaten jarraitu beharko du.

Gainera, DF ere hor dago, Hiria, masa urbano infinitu hori. Eta DF ez da inoiz garbia, higienikoa edo osasuntsua izango. Hiri zikina, pilatua eta kutsakorra izango da halaberbarrez. Kontrolaezina, berez.

Mexiko ez da Irak, ez dago insurgentzia antolatuta bat, baina Mexiko surrealista bere erara matxinatzen jarraitzen du. Eta dirudienek, azkenik lortu dute pobrezia arnasten dugun airean ipintzea. ■



Gu ez gara surrealista, gu ‘razionalak’ gara, eta zabortege batean urdeak eta haurrak ikusi eta urdeak handik atera ditzatela eskatzen amai dezakegu



TXANDAN

Edu Zelaieta

Garaituen soa



Visión de los vencidos liburua oparitu zidan Pedrok orain zortzi

urte, elkarri agur esateko azken momentuan. Aurreko egunetan denetariko gaiak ibiliak genituen aho-belarrietan: zapatisten iraultza, Euskal Herriko egoera, sentiberatasun eza ezkerreko ortodoxoetan, enpatiaren garrantzia egunerokoan, eta abar.

Liburua Mexikotik bueltan irakurtzeko esan zidan, nik munduari so egiten diodan lekuan. Aste batzuek ez nuen liburua begien aurrean pausatuta. Dударik gabe, nire lagunaren mandatuak jakinmina piztu zidan; ez nekien zer topatuko ote nuen orri haietan, ez baitzidan beste

azalpenik eman, hark berak liburua motxilan sartu aurretik.

Oparia udazkenean ireki nuen, neure etxean. Bertan Leon-Portilla antropologo mexikarrak espainolen —eta Hegoaldeko euskaldunen— konkistari buruz bildutako agiriak aurkitu nituen, Hernan Cortesek mintzo ziren Mexika indigenen kodizeak, duela bostehun urteko garaituen soa.

Lehenengoan, apalak enegarrenez txukundu nahian, Pedrok emandako liburua bigarrenez hartu nuen: berrogeita hamar urte joan dira liburua lehen aldiz argitaratu eman zenetik eta, hala ere, putzuaren honaindian apenas dakigu deus garaituen seme-alaben berri. ■